

Makina bat kontu

JOXERRA AIZPURUA

TELEKOMUNIKAZIOAK

Zentralitatik ordenagailura; telefono “berriak”

KOMUNIKAZIOAK MERKEAGOAK dira egun-egunean. Hileroko fakturak, berriz, gora egin du, baina hori telefono bidezko beste zerbitzuak –Internet, telebista...– kobratzen dizkigutelako gertatu da.

Azken aldian, IP bidezko ahots zerbitzua ari da indartzen. Nazioartean VoIP bezala ezagutzen da teknologia hau. VoIP-ek Urruneko komunikazioak asko merkatu ditu eta deiak egiteko Interneteko konexioa erabiltzea ahalbidetzen du gainera.

VoIP-en gainean produktu asko ateratzen ari da. Oso ezaguna da Skype sistema; gero eta gehiago erabiltzen da atzerrian dagoen jendearekin hitz egiteko. Skype-ekin PCtik munduko edozein lekutan Internetera konektatuta dagoen beste PC bateko erabiltzaileare-



kin hitz egin dezakezu ordenagailura konektatutako mikrofona baliatuz.

Enpresetan komunikazio zerbitzuak gero eta garrantzitsuagoak dira. VoIP-ek betiko zentralita ordenadore batez ordezkatu du, erabiltzaileari nahi dituen zerbitzuak programatzeko aukera emanaz:

✓ Zerbitzuen menuaren pertsonalizazioa.

O s a s u n a

JABIER AGIRRE

Alergiak: polenetik frutara

EGURALDI ONA, eta udaberria etorri dira, eta horiekin baita polenak eragindako alergiak ere. Baina alergiak, janariak ere eragiten dituzte. Gaur egun, lau urtetik beherako haurren %8k eta pertsona helduen %2k janariaren kontrako erreakzio alergikoak izaten dituzte. Adituen ustez, anafilaxia edo alergia erreakzio larriak elikakagaiek sortzen dituzte gehienetan. Erreakzio horiek, gainera, bizi kalitate galtzea, eskola edo laneko absentismoa, eta gastu soziosanitarioak ikaragarri gehitzea ekarri dute.

Landare jatorriko elikagaiak, fruitu lehorrak eta frutak dira alergia sortzen duten elikagai ohikoenak. Azken

urteotan, herrialde industrializatuetan gero eta paziente gehiago agertu dira janari jakin batzuei alergia dietenak; alergikoen hazkunde hori polenari alergikoak diren taldeak daraman martxa berean doa; bi alergia mota horiek hainbat alergenokomun baitituzte. Izan ere, polenari alergikoak diren hamar pertsonatik seik sintoma sekundarioak izan ditzakete, elikagai edo janari elkartuak jan ondoren.

Elikagaiek eragindako alergen sintomak asko eta oso diferenteak izan arren, bi talde handitan bana daitezke:

✓ Digestiboak: gorakoak, beherakoak, eta umeetan baita janari jakin batenganako erretxozoa ere. Normalean azaleko zantzuekin batera azaltzen dira sintomak.

✓ Arnas sintomak: doministikuak, sudurreko hazkura, muki urtsuak, begietako eta betazeletako gorritasuna, eta kasu grabeagoetan asma moduko koadro bat.

Horrelako sintomak agertzen badira, eta umeak bat-batean janari bati uko egiten badio, gurasoek horretarako arrazoi berezirik sumatu ez arren, janari susmagarria kentzea, arreta-neurri bezala, eta espezialistarengana joatea oso garrantzitsua da.



landareak



VoIP-ek abantailak dakartzala nabarmena da...

- ✓ Luzapen bakoitzak bere ahots buzoia izatea zentralita-ordenagailuan.
- ✓ Deiak bideratzea; jatorriaren arabera, telefono batean edo bestean jo dezaten.
- ✓ Telefonía operadore egokiena –merkeena– erabili ahal izatea aldi bakoitzean.
- ✓ Deien ezaugarriak –denbora, ordua, zenbakia...– erregistratzea.
- ✓ Luzapen berriak di-da eransteko aukera.

Asterisk da VoIP alorrean software ezagunena. Software librea denez milaka programatzaile ari zaizkio prestazio hobek gehitzen egunero. ■



...beste upeleko sagardoa da teknologia hori iragartzeko "saldu" diguten zoriontasuna emango diguentz.

JAKOBA ERREKONDO

mandio@zerain.com

Galera goriak

BELTZA BELTZ ZABALTZEN ARI DA. Sotanenean eta faxisten urdinean mozorro. Beltza ez bezala galeran da gorria. Gorriak gorri du eta dugu. Aurreko bakanen ondoren kukuak dakar loretza geurera. Gorriak badenaz jabetu al zara? Mitxoletarik ikusi al duzu aspaldiko urteotan? Mitxoleta (*Papaver rhoeas*) ahulezko itsasoak ezagutu ditugu lehorrean, ibaia eta itsaso berdeak errio direnaren algameneko duna eta hondartza harroetan eta urak mediterraneora, Llach-en zubi urdin horretara bidaltzen dituzten lurretako labore soro amaigabeetan. Kukuldi oro gorritza hari so, ez genuen artean inoiz amaituko zirenik asko uste. Joan badira joan dira bada. Ez, eraman, eraman badituzte eraman dituzte bada.

Opioa, morfina, heroina... sendi ederraren ama lobelarraren (*Papaver somniferum*) ahizpa da mitxoleta eta udaberria berotxo zapuzten denean lore, bazkalondoko lo-kuluxkarako amu sedante bikaina da. Badenean, eraman gabea dutenetan. Hondarretatik porlanak eraman ditu politikarien patrika zikineta. Labore soroetatik herbizidek baztertu bide aldeetako zirrindetara. Euskal Herriko mendi Andiairen hego aldeko bidea hartu dut, gari-garagarra itsasoaren erauntsitik artadiak babesten duenetik abiatu eta Ebroraino, Egan barrena. Ale soroak berde eta zainzurienak beltz, plastiko uhin. Alde gorrietako bideak aldamenekoek azagarrei tarra (txepela), andosillarenei indioilar, karkartarrei argi-oilar eta san adriandarenei gaztain-ur deitzen dieten lurretara narama, erreketen urdinek gorritu zituzten herrietara. Hemen bai, almendrondo eta olibondo barrokoteen babesean gorritzak, mitxoletadi latzak ageri dira. Haizeak petaloak etxeetako leihoetaraino daromatza. Itsasokada malko begi bila.



Web, CD-ROM eta paper formatuetan soluzioak alor guztietan

Ikerketa Soluzioak Zerbitzuak

Erremintak

Adur SOFTWARE PRODUCTIONS

Adur Software Productions, S. Coop. (ASP)
Industria 1, 20160 Lesaito-Olea
Tel. 943.37.18.48
e-mail: adur@adur.com

INFORMAZIOAREN UNIBERTSOA